

AISIA ETA KIROLA

0.- SARRERA.

Dokumentu honetan arlokako saioetarako oinarrizko informazio bat jaso dugu. Zehazki honako atalak azaltzen dira:

1. Arloak edo arloek hizkuntzaren ikuspegitik duten garrantziari buruzko balorazioa.
2. Arloko hizkuntza egoerari buruzko hainbat adierazle eta balorazio (4. puntuari informazio hau garatuago dago, nahi duenarentzat)
3. Arloan garatu diren edo planteatu diren egitasmo nagusien zerrenda eta horien balorazioa.
- 4.- Arloko hizkuntza egoerari buruzko adierazleen azalpen xeheagoa dakarren atala. (**Sakondu nahi duenarentzat**)

1.- ARLOEN GARRANTZIA.

Adituen artean adostasun zabala dago haur eta nerabeetan “**etxea, eskola, eskolaz kanpoko jarduerak**” hirukoa lehentasunezko eremu izendatzerakoan. Eremu horiek, **komunikabide eta kultur-kontsumoarekin** batera, azaltzen dira ARRUE ikerketan¹ gazteen erabileran eragin handienekotzat.

Badira hainbat faktore arlo soziokulturala euskararen normalkuntzarako garrantzitsu bihurtzen dutenak: sozializazio-eremu nagusietakoak dira, egunean denbora-tarte handia hartzen dutenak; euskara mundu ludikoarekin, bizipen positiboekin, lotzen du; jarduera antolatuetan sortzen diren harremanak lagunarte arautugabeetarako zubi izaten dira...

Nagusiki edo soilik eskolaren eskutik euskaldundutako gazteen harreman sareetan (etxea, lagunartea, kale-giroa, lantokia) euskara oso ahula baldin bada, euskaratik urrun geratuko dira haiek. Eta etxetik euskaldundutakoaren harreman sareetan ahul baldin bada euskara, edo euskararekiko kontzientzia ahula baldin bada, lehen hizkuntza izatetik bigarrena izatera pasatzeko arriskuan izango dira horiek.

(*Eta hemendik aurrera zer? 2016. Eusko Jaurlaritza. Euskararen Aholku batzordea*).

Bestalde, ezin ahaztu kultura kontsumoak, hedabideak... hizkuntza elikatzeko iturri diren neurrian.

¹ EAEko Ikasleen Euskararen Erabilera eskola-giroan, 2011-2015. Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra

2.- ADIERAZLE NAGUSIAK.

ADIERAZLEA	DATUAK	ONDORIOA
ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK	Kirola Elkartek: futbol federatua eta saskibaloia: %82 inguru euskaraz; besteek eskaintza osoa euskaraz.	Kirola: Eskaintza gehiena euskaraz. Udaleko eskaintza osoa euskaraz. Aisialdia (Gaztelekua, Aidau haurren zerbitzua, udaleku irekiak eta Txapligu). Eskaintza osoa euskaraz.

3.- JARDUERAK, BALORAZIOAK. Bideratu diren edo bideratzea aurreikusi zen egitasmoak.

Arloak eta egitasmoak	EUSKARA ZERBITZUAREN BALORAZIOA		HERRITARREN GALDETEGIA
	Indarguneak	Hobetzekoak	Balorazioak
<p>6. Arlo soziokulturala: kirola, aisia, kultura</p> <ul style="list-style-type: none"> Eskolaz kanpoko jarduerak (kirola, aisia, kultura...) euskalduntzeko egitasmo berria sortzea, antolatzen dituzten jarduerak (entrenamenduak, entseguak, ikastaroak...) euskaraz izateaz gain, inguru ere euskalduna izateko. Kirol elkarten entrenamendu eta partidetan euskararen erabilera sustatu, diru-laguntzetan hizkuntza irizpideak txertatuaz. Kirol entrenatzaile eta aisialdiko begiraleei euskarazko formazioa eskaini. 	<ul style="list-style-type: none"> Kirol entrenatzaile eta aisialdiko begiraleei hizkuntza gaien gaineko formazioa eskaintzen zaie eta begirale titulua euskaraz ateratzeko dirulaguntzak eman dira. Hezitzaileen profila aldatzen doa: gero eta gehiago dira euskaraz dakitenak. 	<ul style="list-style-type: none"> Eskolaz kanpoko jarduerak euskalduntzeko egitasmo berria ez da landu. Ikastetxeekin gaia lantzeko mintegia eratu nahi zen baina ez da egin. Orain baloratzekoa. Kirol elkarteetako entrenatzaile asko boluntarioak dira eta hainbat kasutan es dituzte entrenatzaile euskaldunak aurkitzen. Entrenatzaileek euskaraz egin arren, jokalariek gaztelaniaz hitz egiteko joera izaten dute. 	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza ludiko bihurtu, umeek eskola hutsarekin lotu ez dezaten: jolasarekin lotu, aisiarekin, lagunartearekin... Eskola segregazioan eragin, eskolaz kanpoko ekintza bateratuak...

4.- DIAGNOSIKO INFORMAZIO ZEHATZAGOA

4.1.- Partehartzea eta hizkuntza, 2022-23 edo 2023-24 ikasturtean, 18 urtez azpikoen artean: aisia, kirola.

a. Aisialdia

		Partaid.	Mut	Nes	Mut %	Nes %	Etorki.	Eus %
Elkarteak	Txapligu	113	30	83	27	73	1	100
	Udala							
	Gaztelekua	369*	209	160	57	43		100
	Udaleku irekiak	395	192	203	49	51	57	100
	AIDAU ludoteka	401	169	232	42	58	240	100

*Gaztelekua: Izena emanda 369 pertsona. Batez besteko erabilera aste barruan 20 pertsona eta aste bukaeran 50.

* AIDAU ludoteka: 401 bat izen-emate dituzte baina ez dira 401 ume (aforo kontuak direla eta, izen-emateen bitartez funtzionatzen dute eta ume batzuk behin baino gehiagotan daude kontatuta). Ohiko egunetan, astean 84 bat ume joaten dira AIDAURa (horietatik 33 etorkin). Ekintza bereziak dituztenean ere 80 bat ume joaten dira astean, baina etorkinen kopurua 2ra jaisten da.

b. Kirolak

		Partaid.	Mut	Nes	Mut %	Nes %	Etorki.	Eus %
Elkarteak	Pilota	84	80	4	95	5	1	100
	Igeriketa	69	21	48	31	69	0	100
	Ziklismoa	44	35	9	80	20		100
	Eskubaloia	100	30	70	30	70	2	100
	Karatea	57	20	37	65	35		100
	Piraguismoa	9	5	4	56	44		100
	Futbol eskola	181	123	58	68	32	12	100
	Futbol federatua*	237	191	46	81	19	6	81*
	Saskibaloia	115	64	51	56	44	7	82*
	Gimn. erritmikoa	62		62		100		100
	Mendia	216	101	115	47	53		100
	Hockey-a	78	39	39	50	50		100
Udala	Eskola kirola	594	360	234	61	39		100
	Igeriketa ikastaroak	328	167	145	51	49		100
	Multitraining	16	4	12	25	75		100
	Udako kirol campusa	264	142	122	54	46		100

Oharrak:

- Futbol federatua: % 81 euskaraz; gainerakoek bi hizkuntzetan jasotzen dituzte entrenamenduak
- Saskibaloia: %82 euskaraz; gainerakoen erdiak bi hizkuntzetan jasotzen ditu entrenamenduak eta beste erdiak gaztelaniaz.

4.2.- 18 urtez azpikoentzako jardueren hizkuntza bilakaera.

		Euskaraz + nagusiki euskaraz (kirolarien %)		
		2013/14	2017-18	2022-23
Elkarteak	Futbol federatua	47	73	81
	Futbol eskola	74	100	100
	Saskibaloia	79	61	82
	Eskubaloia	100	100	100
	Pilota	100	100	100
	Igeriketa	100	100	100
	Gimn. erritmikoa	33	57	100
	Piraguismoa	0	100	100
	Ziklismoa	100	100	100
	Hockey-a	–	100	100
	Karatea	100	100	100
	Mendia	100	100	100
	Guztira	73	79	93

Igoera saskibaloian kirolari asko izan zirelako eta horietan ehuneko handia euskaraz.

Udala	Eskola kirola	100	100	100
	Igeriketa ikastaroak	100	100	100
	Spining gazte	100	100	–
	Zumba	–	100	–
	Multitraining	–	100	100
	Udako kirol campusa			100
Entitate pribatuak	Karatea Giartzu	Ez dugu daturik		